7/2022 EBAZPENA, uztailaren 14koa.

RESOLUCIÓN 7/2022, de 14 de julio

PRESIDENTEA: María Barrena Ezcurra.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

MAHAIKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatuak, EBAZPEN hau eman du jendaurreko informazio-eskaerari bere garaian emandako erantzunean dokumentazioa ez bidaltzearen ondorioz aurkeztutako erreklamazioa dela-eta. Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia andrea aritu da txostengile, eta Batzordearen iritzia azaldu du:

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada por , como consecuencia de la falta de remisión de documentación en la respuesta a la solicitud de información pública en su momento planteada. Actúa como ponente Dña. Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia, quien expresa el parecer de la Comisión:

## EGITATEZKO AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA. 2022ko apirilaren 21ean, (aurrerantzean, edo *“erreklamatzailea”*, bata zein bestea) informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistro elektronikoan.

PRIMERO. Con fecha 21 de abril de 2022, D (en lo sucesivo, e indistintamente, o *“el reclamante”*) presentó, en el registro electrónico de la Diputación Foral de Bizkaia, solicitud de acceso a información pública.

Erreklamatzaileak aurkeztutako eskaeran jasotakoarekin bat etorriz, honako informazio hau eskuratu nahi zen:

De conformidad con lo recogido en su solicitud, se pretendía acceder a la información siguiente:

-Zenbat azeri *(Vulpes vulpes)* harrapatu diren uxaldietan Bizkaiko Lurralde

-Número de zorros *(Vulpes vulpes)* capturados en batidas en el TH de Bizkaia

Historikoan 2020-2021 ehiza-denboraldian.

en la temporada de caza 2020-2021.

-Zenbat basurde *(Sus scrofa)* harrapatu diren ehiza-postuetan nekazaritzari eragindako kalteengatik Bizkaiko Lurralde Historikoan 2021ean.

-Número de jabalíes *(Sus scrofa)* capturados en esperas por daños a la agricultura en el TH de Bizkaia en 2021.

-Zenbat basurde *(Sus scrofa)* harrapatu diren tranpa-kaioletan Bizkaiko Lurralde Historikoan 2021ean.

-Número de jabalíes *(Sus scrofa)* capturados en jaulas-trampa en el TH de Bizkaia en 2021.

-Zenbat basurde *(Sus scrofa)* harrapatu diren ezohiko uxaldietan Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020-2021 ehiza-denboraldian, parke naturalen eta uxaldi arruntik egiten ez den eremuen arabera xehatuta.

-Número de jabalíes (Sus scrofa) capturados en batidas extraordinarias en el TH de Bizkaia en la temporada de caza 2020-2021, desglosado por Parques Naturales y zonas donde no se dan batidas ordinarias.

-Zenbat izokinkume *(Salmo salar)* askatu diren Bizkaiko Lurralde Historikoan 2021ean, arroen arabera xehatuta.

-Número o cantidad de alevines de salmón *(Salmo salar)* liberados en el TH de Bizkaia en 2021, desglosado por cuencas.

-Zenbat izokin *(Salmo salar)* eta zenbat itsas amuarrain *(Salmo trutta trutta)* harrapatu diren harrapaketa-tranpetan Bizkaiko Lurralde Historikoan 2021ean, espeziearen eta tranparen arabera xehatuta.

-Número de salmones *(Salmo salar)* y reos *(Salmo trutta trutta)* capturados en trampas de captura en el TH de Bizkaia en 2021, desglosado por especie y trampa.

-Zenbat angula *(Anguilla anguilla)* harrapatu diren harrapaketa-tranpetan Bizkaiko Lurralde Historikoan 2021ean, tranpen arabera xehatuta.

-Número de angulas *(Anguilla anguilla)* capturadas en trampas de captura en el TH de Bizkaia en 2021, desglosado por trampas.

<u>BIGARRENA</u>. Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusiaren ebazpenaren bidez, baimena eman zen eskatutako informazioa eskura zezan, eta adierazi zen informazio hori postaz bidaliko zitzaiola interesdunari.

<u>SEGUNDO</u>. Mediante resolución de la Subdirección General de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales, se autoriza el acceso del a la información solicitada, indicándose que dicha información se remitirá al interesado por correo postal.

Ebazpen hori 2022ko apirilaren 29an

Dicha resolución se remitió al interesado

bidali zitzaion interesdunari.

con fecha 29 de abril de 2022.

HIRUGARRENA. 2022ko maiatzaren 25ean, erreklamazioa jarri zuen batzorde honetan. Hitzez hitz honako hau zioen:

TERCERO. El día 25 de mayo de 2022, interpone reclamación ante esta comisión, siendo el tenor literal de la misma el siguiente:

*«Honako informazio publiko hau eskatu nuen 2022-04-21ean (erregistro-zenbakia: G88202200356532E): (...)*

*Erantzuna emateko ezarritako 15 egun balioduneko epean, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren 2 orrialdeko jakinarazpen bat jaso nuen postaz (irteera-erregistroko zenbakia: G01202200020217S; erregistro-data: 2022/04/29), Roberto Cañón Gorostizak sinatua. Bertan, eskatutako informazioa eskuratzeko baimena ematen zitzaidala ebatzi zen.*

*Ebazpen horren bigarren puntuak honako hau dio: "Eskuratzeko baimendutako informazioa postaz bidaliko da, interesdunak emandako helbidera".*

*Eskatutako informazioa ez zitzaion erantsi lehen aipatutako jakinarazpenari, eta, gaur egun, informazioa emateko 15 egun balioduneko epea bete ondoren, ez dut jaso eskatutako ezer. Egia da 15 egun balioduneko epea beste 15 egun baliodunez luza daitekeela, baldin eta, eskatutakoaren bolumena edo zailtasuna dela-eta, administrazioak ezin badu bete lehenengo epea, baina interesdunari jakinarazi behar zaio luzapena, eta kasu honetan ez da halakorik gertatu.*

*Beraz, baimena eman didate eskatutako informazioa eskuratzeko, baina "de facto" ukatu egin didate, ez didatelako eman eskatutakoa. Erreklamazio honen bidez,*

*«El 21/04/2022, con nº de registro G88202200356532E, solicité el acceso a la siguiente información pública: (...)*

*En el plazo de los 15 días hábiles que se estipula para dar una respuesta, recibí por correo postal una comunicación de 2 páginas, del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural, con nº de registro de salida G01202200020217S, fecha de registro el 29/04/2022 y firmada por Roberto Cañón Gorostiza, donde se resuelve que se me autoriza a acceder a la información solicitada.*

*El segundo punto de dicha resolución dice lo siguiente: "La información cuyo acceso se autoriza se proporciona por correo postal a la dirección facilitada por el interesado".*

*La información solicitada no se adjuntaba a la comunicación anteriormente citada y a día de hoy, cuando ya se ha cumplido el plazo de 15 días hábiles para facilitar la información, no he recibido nada de lo solicitado. Si bien es cierto que el plazo de 15 días hábiles se puede ampliar en otros 15 días hábiles cuando por el volumen o la dificultad de lo solicitado, la administración no pueda cumplir el primer plazo, esta ampliación debe notificarse al interesado, cosa que no ha sucedido en este caso.*

*Por lo tanto, se me ha autorizado a acceder a la información solicitada, pero se me ha denegado "de facto", ya que no se me ha proporcionado lo solicitado. A través de*

*berriro eskatzen dut eskuratzeko baimendu didaten informazioa eman diezadatela.*

*esta reclamación solicito de nuevo que se me proporcione la información a la que se me ha autorizado a acceder.*

*Erantsi nahi nuke bigarren aldia dela gardentasunaren ataria erabiltzen dudana informazio publikoa eskuratzeko eskaera bat aurkezteko, eta bietan gauza bera gertatu zaidala, hau da, baimena eman didatela eskatutako informazio publikoa eskuratzeko, baina informazio hori ez didatela eman ezarritako epean. Espero dut hau ez dela izango Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak herritarrei gogoa kentzeko eta, horrela, informazio publikoa eskuratzeko eskaerarik ez jasotzeko duen "modus operandi"a».*

*Quisiera añadir que es la segunda vez que utilizo el portal de transparencia para presentar una solicitud de acceso a información pública y las dos veces me ha pasado exactamente lo mismo, esto es, se me ha autorizado a acceder a la información pública solicitada, pero no se me ha proporcionado dicha información en el plazo estipulado. Espero que no sea el "modus operandi" del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural para desanimar al ciudadano y así no recibir solicitudes de acceso a información pública».*

<u>LAUGARRENA</u>. Erreklamazioa jaso ondoren, bere erreklamazioan planteatutako gaiei buruzko informazioa emateko eskatu zitzaion zuzendaritzaorde nagusi eskudunari.

<u>CUARTO</u>. Una vez recibida la reclamación, se solicitó a la subdirección general competente que informase respecto de las cuestiones planteadas por el en su reclamación.

<u>BOSGARRENA</u>.-2022ko ekainaren 22an, posta elektronikoz, Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusiak jakinarazi zuen mezu elektroniko bat bidali zitzaiola erreklamatzaileari; mezu horretan, honako hau adierazi zitzaion:

- 2022-04-26an, datu hauek lortu ziren: zenbat basurde harrapatu diren ehiza-postuetan eta tranpa-kaioletan. Ondoren, beste datu hauek lortu ziren: zenbat azeri harrapatu diren uxaldietan.
- Erreklamatzaileak eskatutako informazioa erantsi da.

<u>QUINTO</u>. Mediante correo electrónico de 22 de junio de 2022, la Subdirección General de Espacios Naturales y Servicios Generales informa de la remisión de un correo electrónico al reclamante, en virtud del cual se le indicaba lo siguiente:

- Que con fecha 26/04/2022 se obtuvieron los datos correspondientes a capturas de jabalí en esperas y en jaulas trampa y que posteriormente se han obtenido las capturas de zorro en batidas.
- Que se acompaña la información solicitada por el reclamante.

Halaber, eskatutako informazioa

Se indica, asimismo, que la información

erreklamatzaileari bidali zaiola adierazten da.

solicitada ha sido remitida al reclamante.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENENGOA.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez sortu zen.

Foru-arau honen 29.1.1 artikuluaren arabera, 2. artikuluari lotuta, biak ala biak foru-arau honi datxezkiola, Erreklamazio Batzordeak eskumena izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru-erakunde autonomoen, foru-erakunde publiko enpresarialen, merkataritzako foru-sozietateen, foru-fundazioen eta foru-partzuergoen eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzioz ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak ebazteko.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduak, uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, bere 18. artikuluan ezartzen du, besteak beste, Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela: *a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de Transparencia del Territorio Histórico de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("*Decreto Foral 128/2016*"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: *a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*

BIGARRENA. Adierazi diren aurrekarien arabera, erreklamazioa jarri zuen batzorde honen aurrean, ez zitzaiolako eskatutako informazioa eman, zegokion ebazpenaren bidez aukera eman bazitzaion ere informazio hori eskuratzeko.

HIRUGARRENA. Aurrekoa gorabehera, egitatezko aurrekarietan adierazi den moduan, Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusiak, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailekoak, batzorde honi jakinarazi dio eskatutako informazioa bidali duela; hori bai, batzorde honi erreklamazioa aurkeztu eta gero.

LAUGARRENA. Esandakoa ikusita, ondorioztatu behar da erreklamatzailearen uzia bete egin dela, hark eskatutako informazioa jakinarazi zaiolako.

Hala ere, adierazi behar da indarrean dagoen araudian ezarrita dagoen gehieneko epea igaro ondoren egin zela jakinarazpen hori, eta informazio publikoa eskuratzeko baimena emateko ebazpena jakinarazi ondoren.

Ebazpen horretan, gainera, adierazi behar zen informazioaren zati bat prestatzen ari zirela eta, ondorioz, ezin zitzaiola interesdunari bidali epe barruan.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, erreklamazioaren xedea gerora galdu dela deklaratu behar da. Hala ere, Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu

SEGUNDO. De acuerdo con los antecedentes que hemos recogido, formuló reclamación ante esta comisión al no habérsele facilitado la información solicitada, pese a que mediante la resolución correspondiente se le había autorizado el acceso a la misma.

TERCERO. No obstante lo anterior, tal y como se ha indicado en los antecedentes de hecho anteriores, la Subdirección General de Espacios Naturales y Servicios Generales del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural ha informado a esta comisión de la remisión de la información solicitada, si bien lo ha hecho con posterioridad a que se formulara reclamación ante esta Comisión.

CUARTO. A la vista de lo señalador se debe concluir que la pretensión del ahora reclamante ha sido satisfecha, al habérsele comunicado la información solicitada.

No obstante, debe señalarse que dicha comunicación se realizó una vez transcurrido el plazo máximo de resolución establecido en la normativa vigente y también con posterioridad a la notificación de la resolución estimatoria de su solicitud de acceso a información pública.

Dicha resolución, además, debiera haber hecho referencia a que parte de la información se encontraba en proceso de elaboración y que, por tanto, no podía ser remitida al interesado en plazo.

Tomando en consideración todo lo señalado, procede declarar la pérdida sobrevenida del objeto de la reclamación, si bien se insta a la Subdirección General

Orokorrak Bideratzeko Zuzendariordetza Nagusiari eskatzen zaio informazio publikoa eskuratzeko hurrengo eskaeretan kontuan har ditzala txosten honetan jasotako oharrak.

de Gestión de Espacios Naturales y Servicios Generales para que en futuras solicitudes de acceso a información pública atienda a las observaciones que se contienen en el cuerpo del presente informe.

## EBAZPENA

## RESOLUCIÓN

Lehenengoa. Deklaratzea sustatutako erreklamazioaren xedea gerora galdu dela, hark informazio publikoa eskuratzeko eskaeratik ondorioztatzen den uzia bete egin delako.

Primero. Declarar la pérdida sobrevenida del objeto de la reclamación promovida por al haber sido satisfecha la pretensión deducida en su solicitud de acceso a información pública.

Bigarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea erreklamatzaileari eta Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saileko Naturaguneak Kudeatzeko eta Zerbitzu Orokorrak Bideratzeko Zuzendaritzaorde Nagusiari. Halaber, Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari ere jakinaraziko zaio.

Segundo. Notificar esta resolución al reclamante y a la Subdirección General de Espacios Naturales y Servicios Generales del Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa.

Hirugarrena.- Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEko epean, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Tercero. - La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia onesten duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de

artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin ados egonik.

Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.